

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko martxoaren 16an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

11.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Elkarzabal Integraziorako Elkarrearen dirulaguntza zuzen eta izenduna onartzea eta hitzarmena sinatzea.

Alkate-udalburuaren 2023ko martxoaren 14ko proposamenak dio:

Gaia: Elkarzabal Integraziorako Elkarrearen dirulaguntza zuzen eta izenduna onartzea eta hitzarmena sinatzea.

Udaleko SOZIOEKONOMIA teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut

Espediente zk.:.....	2023ZDIZ0004
Espedientearen helbidea:.	FORUEN ENPARANTZA 1 OÑATI
Udalerrria:.....	Oñati
Gaia:.....	Elkarzabal Integraziorako Elkarrearen dirulaguntza eskaera onartzea eta hitzarmena sinatzea
Interesduna:.....	ELKARZABAL INTEGRAZIORAKO ELKARTEA
Prozedura:.....	ZDIZ-Udalak emandako diru-laguntzak (izendunak-zuzenak)
Sarrera erregistroa:.....	2023 / 001046

ELKARZABAL INTEGRAZIORAKO ELKARTEAK hasitako prozedura aztertu da.

Elkarzabal Integraziorako Elkarreak dirulaguntza eskaera egin dio udalari, zaugarritasun egoeran dauden pertsona migratzaileen enplegarritasunaren eta kualifikazioa hobetzeko 2023 ekitaldian garatuko duen ekintza plana aurkeztuz.

Aipatutako gaiari dagokionez, jarraian azaltzen dira **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Elkarzabal Integraziorako Elkarrea pertsona migratzaileen integrazioa xede duen irabazi asmo gabeko elkarrea da. 2014an sortu zen Oñatin, Caritasen ekimenez. Elkarrearen xede soziala bazkide eta beraien senideen oinarritzko beharrak asetzea, enplegu sorrera eta formakuntza helburu duten jarduerak garatzea eta bide batez bazkide eta senideen integrazioa erraztea dira.

Bigarrena.- 2023ko martxoaren 3an, Jesus Maria Aramburu Raymondek, Elkarzabal Integraziorako Elkarrearen izenean, 2023ko ekintza plana garatu ahal izateko dirulaguntza eskaera aurkeztu du Oñatiko Udalean (erregistro zenbakia 1046).

Hirugarrena.- Eskaerarekin batera 2023ko ekintza plana aurkeztu du Elkarzabalek. Ekintza plan horrek, Oñatiko Caritasekin, Bidebarri laneratze enpresarekin eta Oñatiko Udalarekin batera 2021 eta 2022 urteetan zehar egindako hausnarketa prozesuan eta bertatik eratorritako ekintza proposamenetan dauka oinarria. Bertan jasota daude egun Elkarzabal elkarreak kudeatzen dituen zaintza zerbitzua eta ortua proiektuak garatzen jarraitzeko proposamenak eta proiektu horietan jarduten duten pertsonen gaitasunak hobetzeko prestakuntza ekintza ezberdinak.

Laugarrena.- Elkarzabalek aurkeztutako 2023ko ekintza planean zehazten dira elkarreak ekitaldian zehar garatzea aurreikusten dituen ekintzak. Laburbilduz honako hauek aipatzen dira:

- Prestakuntza jarduerak:
 - Zaintza arloan, Mendekotasuna duten pertsoneri laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan profesionaltasun-ziurtagiria. (2 ikastaro)
 - Nekazaritza arloan: Nekazaritzako jarduera osagarriak.
- Zaintza eta Ortua proiektuen birdiseinua, garapena eta profesionalizazioa.

Bosgarrena.- Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Sailaren helburu nagusietako bat herriko garapen sozio-ekonomikoa indartu eta enplegua sustatzea da. Norabide horretan, udalak konpromisoa hartu zuen zaugarritasun egoeran dauden edota laneratzeko zailtasunak dituzten pertsona migratzaileen egoera sozio-laborala hobetzeko 2021 eta 2022 urteetan zehar Elkarzabal elkartearekin, Oñatiko Caritasekin eta Bidebarri laneratzeko enpresarekin batera egindako hausnarketa prozesutik eratorritako ekintzak martxan jartzen laguntzera baliabide, proiektu eta programa zehatzak bideratzeko.

Seigarrena.- 2023ko Sozioekonomia Saileko udal aurrekontuetan izendatuta dago Elkarzabal Integrazio Elkartearentzako 20.000 euroko diru partida bat, 1000.480.241.05.01 zenbakia duena eta elkartearen 2023ko ekintza plana garatzera bideratzea aurreikusita dagoena.

Azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, Sozioekonomia Sailetik dirulaguntza izenduna ematea proposatzen da Elkarzabal elkarteari. Hauek izango lirakeke **dirulaguntza hori emateko ezartzen diren baldintzak:**

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak gehienez ere 20.000€ arteko dirulaguntza emango dio Elkarzabal Integrazioarako elkarteari, 2023ko ekintza plana garatzeko.

Bigarrena.- Elkarzabal 2023an jasandako gastuen %100 finantzatzeko erabili ahal izango da dirulaguntza, betiere aurkeztutako gastuak ekintza planarekin lotura badute eta jarraian zehazten den muga aintzat hartzen bada:

- Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan udalak emandako dirulaguntza zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarzabal izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa aurreikusitako ekintzak amaitzen direnean zehaztuko da edo beranduen 2023ko ekitaldiaren amaieran. Horretarako elkarzabal ekintzen memoria eta diru sarrera eta gastuen justifikazioa aurkeztu beharko ditu.

Laugarrena.- Oñatiko Udalaren dirulaguntza era honetara ordainduko da:

- Dirulaguntzaren %50, hau da, 10.000€, hitzarmena sinatzen den momentuan.
- Dirulaguntzaren gainontzeko zenbatekoa, gehienez ere %50a osatu arte, ekitaldiaren amaieran memoria eta zuriak ekonomikoa aurkeztu eta udalak onarpena emandakoan.

Bostgarrena.- Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko da:

- Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria.
- Gastuaren izaeratik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira aurkeztutako gastuak justifikatzen duten ziurtagiriak. Adibidez, Jaso izanaren agiriak elkartearen ziguilarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailearen izen-abizen, NA zenbaki eta sinadurarekin.
- Elkartearen diru sarreraren azalpenak eta horren egiaztagiriak:
 - Diru laguntzen ebazpena edo ordainketaren agiriak.
 - Bazkideen kuoten ordainagiriak.
 - Beste diru sarrerarik balego, horren justifikazio dokumentala.

Horrela beraz, gaia buruzko azalpenak Sozioekonomia eta Turismo batzordean eman ondoren, erabaki proposamena hau egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- 2023ko ekintza plana garatzeko Elkarzabal Integrazioarako Elkarzabal elkartearekin lankidetzak hitzarmena sinatzea eta plan hori garatu ahal izateko 20.000€ko dirulaguntza onartzea, goian zehaztutako baldintzetan.

Bigarrena.- Hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du, eta ere hori igarota, ondoriorik gabe geratuko da.

Hirugarrena.- Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea (2023ko ekitaldirako 20.000€ arteko dirulaguntza) 1 1000.480.241.05.01 (5654) diru-atalaren eta bere lotespen-mailaren kargura. Eta hitzarmena sinatzen den momentuan dirulaguntza zenbatekoaren %50aren ordainketa agintzea.

Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bostgarrena.- Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Saileko teknikaria izendatzea hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko udalaren arduradun.

Seigarrena.- Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Sozioekonomia Saileko teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan

